



ADINGABEKO BATEN OSASUN DATUAK TRATATZEA IKASTETXE BATEKO ESKOLA KONTSEILUAN.

Kontsulta hau 15 urteko ikasle baten gurasoek egin zuten. Pasa den ikasturtearen bukaeran guraso horiek idazki bat bidali zuten semearen ikastetxera, azaltzen adingabeak ikasturtean zertzuk jasan zituen, eta haien ustez ikastetxeak ez zuela behar bezala konpondu egoera. Horrez gain, idazkiaren bidez gurasoek eskatu zuten Eskola Kontseiluak gurasoen proposamenak aztertu zitzala, eta, behar izanez gero, erabakiak ere hartzeko, halakorik ez gertatzeko gehiagotan. Gurasoek eskatzen dutena da haien semeak bezalako gaixotasun kronikoren bat duten ikasleentzako plangintza txikiren bat egiteko; eta, horretarako, uste dute funtsezkoa dela ikastetxeak gaixotasunen ezaugarrien berri izatea eta gaixotasuna duten ikasleak zein diren jakitea; kasu honetan, semea da.

Baina, gurasoek esan dutenez, ikastetxeko zuzendaritzak ez du Eskola Kontseilura bidali idazkia, datu babesarengatik, hau da, idazkiak adingabe baten osasun datuak dituelako.

Beraz, ebatzi beharrekoa da ea ikastetxe horretako organo gorenak egin duen tratamendua edo izan duen portaerak datuak babesteko araudia urratu duen, kontuan hartuta adingabeari buruzko informazio sentsiblea gurasoek bidali dutela,.

Horretarako, gogora ekarri behar dugu datu pertsonalen tratamendu ororako funtsezko araua dela datuen titularrak argi adieraztea adostasuna. Adostasunaren printzipioa Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 6.1 artikuluan dago araututa, eta hainbat salbuespen ditu. Salbuespen bat da lege batek datu tratamendua gaitzea, eta legea izan daiteke DBLO edo beste bat. Baina, legea izan behar da, eta orokorra ala berezia izan daiteke.

Datuen tratamendua hezkuntzaren esparruan gertatu denez, nahitaez aipatu behar da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. Legeak dio hezkuntza-administrazioek jarriko dituztela ikasle guztiek ahalik eta garapen pertsonal, intelektual, sozial eta emozional handiena eta lege honetan ezarritako helburu orokorrak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak (71. artikulua), eta ikastetxeek behar bezalako eskola-antolamendua izan beharko dutela, eta ikasle guztiek ezarrita dauden helburuak lortzeko beharrezkoak diren curriculum-egokitzeak egingo dituztela eta curriculum desberdinak eratuko dituztela (72. artikulua). Baina, 2/2006 Lege Organikoaren artikulua horiek ez dute ikasleen osasun datuak tratatzeko gaikuntzarik aitortzen, gurasoek edo tutoreek adostasunik ez badute adierazi.

Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarriak ere ez du datuak tratatzeko gaikuntzarik aitortzen. Horrez gain, dio gurasoek edo tutoreek, bai eta ikasleek beraiek ere, lagundu egin behar dutela informazioa eskuratzen, eta, beraz, ikasle bat ikastetxe batean sartzean, ikasle horren datuak tratatzeko baimena emango duela eta, hala badagokio, ikaslea aurretik eskolatu zen ikastetxeko datuak lagako direla, datuen babesari buruzko legerian ezarritako baldintzetan. Azkenik dio, nolana ere, paragrafo honetan aipatutako



informazioa irakaslanerako eta orientabide-lanerako behar-beharrezkoa dena izango dela, eta ezin izango dela, esanbidezko baimenik gabe, hezkuntzakoaz bestelako helburuetarako erabili.

Agentziaren aburuz, 2/2006 Lege Organikoaren manu horretako gaikuntzak ez du balio ikasleen osasun datuak tratatzeko, DBLOk dioenez, bereziki babestutako datuak direlako, pertsonen esparru intimoenekoak direlako, eta, beraz, halako datuak tratatzeko, babes berme bereziak daudelako.

DBLOren 7.3 artikulua xedatzen du arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezkeela interes orokorreko arrazoiak direla bide eta legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean.

Adostasuna adierazteko moduari buruz esan behar dugu esanbidezko edo berariazko adostasunak esan nahi duela datu tratamendua egiteko baimena ematen duen interesdunak argi eta garbi adierazi behar duela adostasuna, baimena emateko borondatea idatziz, ahoz, komunikazio telematiko bidez edo beste edozein modutan adieraziz.

Aztertzen ari garen kasuan adingabearen gurasoek ikastetxeko Eskola Kontseilura bidali zuten idazkia izenpetuta aurkeztu zuten, eta, beraz, esanbidez adierazi zuten ikastetxeko kide anitzeko organo horrek semearen osasun datuak tratatzeko adostasuna.

Horrekin lotuta, esan beharrean gaude DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 13.1 artikulua dio hamalau urtetik gorako datuak tratatzeko aukera egongo dela, horretarako baimena ematen badute, non eta legeak ez duen eskatzen, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea. Eta horixe da, hain zuzen ere, osasun arloan gertatzen dena adibidez; gurasoen edo tutoreen guraso-agintea oso presente baitago, adingabeko horien bizitza, integritate fisikoa edo nortasunaren garapen askea kaltetu daitekeelako. Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoren arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 9.3 g) artikulua dioenez, adingabeak 16 urte beteta eduki behar ditu adostasuna adierazteko. Beraz, adin hori izan arte, gurasoek edo tutoreek baino ezin dute adierazi halako datuak tratatzeko adostasuna.

Hezkuntza esparruan oso presente dago guraso-ahalaren egikaritza.

Gogoan izan behar dugu seme-alaba emantzipatu gabeak guraso ahalaren menpean daudela, eta guraso-ahalak bere baitan hartzen ditu, besteak beste, seme-alabak hezteko, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa emateko betebeharrak (Kode Zibilaren 154. artikulua).

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikulua dio gurasoek honako eskubideak dituztela seme-alaben hezkuntzari dagokionez: hezkuntza izateko eskubidea, kalitate-bermerik handienarekin; seme-alabek ikasteko eta gizartean eta hezkuntzan txertatzeko prozesuan egindako aurrerapenaren berri jasotzeko eskubidea; seme-alaben irakasteko eta ikasteko prozesuan parte hartzeko eskubidea; eta seme-alaben ikasketa-orientabidean eta lanbide-orientabidean eragina duten erabakietan entzunak izateko eskubidea. Era berean, 4. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatzen du gurasoak edo tutoreak seme-alaben edo ardurapekoen hezkuntzaren arduradun nagusiak direnez gero, honako eginkizun hauek dagozkiela: seme-alabek edo



ardurapekoek derrigorrezko irakaskuntzak egiteko eta eskoletara erregularki joateko beharrezkoak diren neurriak hartzea edo, zailtasunak izanez gero, bidezko laguntza eskatzea, batetik; eta, bestetik, seme-alaben errendimendua hobetzeko ikastetxeek familiekin ezartzen dituzten hezkuntza-konpromisoei jarraiki ezarritako jardueretan aktiboki parte hartzea.

Azken finean, botere publikoek adingabeen eskubideak bermatu behar dituzte, besteak beste, adingabeen intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea. Baina, eskubide hori bateratu egin behar da gurasoek guraso-ahala egikaritzeko duten eskubidearekin, kontuan izanda, seme-alaben onurarako dela beti, seme-alabei hezkuntza eta oso-osoko heziketa emateko, eta, azken finean, derrigorrezko hezkuntza aldian dirauela, hau da, 6 urtetik 16 urtera bitartean (2/2006 Lege Organikoaren 4.2 artikulua).

Ondorioz, Agentziaren iritziz, ikastetxe bateko Eskola Kontseilu bateko kideek ikastetxeko bertako 15 urteko ikasle baten osasun datuak tratatzen badituzte, gurasoen adostasunarekin, Eskola Kontseiluak ez du urratzen datuak babesteko araudia, baldin eta datu tratamendua funtsezkoa bada helburua lortzeko, eta, beraz, DBLOren 4. artikulua arautzen duen kalitatearen printzipioaren arabera bada.

Edozelan ere, ezin dugu alde batera utzi, osasun datuak beste helburu baterako erabili behar izanez gero, berariazko adostasuna eskatu beharko direla berriro.

Azkenik, azpimarratu behar dugu Eskola Kontseiluko kideek, euren legezko eginkizunak burutzean, adingabeen datu pertsonalak atzitzen badituzte, sekretu gordetzeko eginbeharra dutela, eta eginbeharrak bere horretan iraungo duela, nahiz eta eskola kontseiluan dituzten eginkizunak amaituta egon, hala xedatzen baitu DBLOren 10. artikulua).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 19a